

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5731

EBAZPENA, 2017ko azaroaren 15ekoa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abuztuaren 18ko Aginduaren babesean aurkeztutako artxibo ez-publikoak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko jardueretarako diru-laguntza eskabideen gainean hartu den erabakia.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abuztuaren 18ko Agindua 2017ko abuztuaren 21ean argitaratu zen EHAAn; agindu horren bidez ezarri zen artxibo ez-publikoak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak emateko araubidea.

Aipaturiko aginduaren 11.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ikusita, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean aipatzen diren onuradunei diru-laguntzak ematea, bertan zehazten den bezala.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko azaroaren 15a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2017ko azaroaren 27a, astelehena

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Duque de Estrada Tejada, Ricardo	Gipuzkoako maiorazkoak antolatzea eta digitalizatzea	18.000,00 euro
Euskal Herriko Txistularien Elkartea	Artibo-funtsa antolatzea, digitalizatzea eta zabaltzea	7.000,00 euro
Eusko Ikaskuntza	Eusko Ikaskuntzaren artibo dokumentala (1918-1936): katalogatzea, digitalizatzea eta zabaltzea	6.500,00 euro
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua	Digitalizatzea eta artxiboko datu-basean integratzea	3.500,00 euro
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia (I. programa)	XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako Loiolako dokumentuen hustuketa	11.000,00 euro
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia (I. programa)	Funts historikoak digitalizatzea: Historia funtseko 8. fasea (RRCC eta beste batzuk)	18.000,00 euro
Larrea Centeno, Amaia	Andre Maria Zuria terzioko Valeriano Martínez erreketearen gerrako egunerokoa digitalizatzea	140,00 euro
Lenbur Fundazioa	Enpresa-funtsak antolatzea eta katalogatzea	4.360,00 euro
Murua Lezama-Leguizamon, M ^a Carmen	Murua Etxeko artxiboa digitalizatzea	18.000,00 euro
Ruiz de Arcaute Alustiza, Ramon eta beste ondasun erkiidegoak	Barrenechea Artxiboa. Bizkaiko ondoko maiorazkoak deskribatzea eta digitalizatzea: Erquiñigo, Muxica, Ocariz, Aranguren, Lezama, Begoña eta horiei erantsiak	18.000,00 euro
Sancho el Sabio Fundazioa (I. programa)	Uriarte familia artxiboa antolatzea eta digitalizatzea	18.000,00 euro
Sancho el Sabio Fundazioa (II. programa)	Munibe familia artxiboa antolatzea, deskribatzea eta informatizatzea	11.500,00 euro
Zavala Etxeko Artiboaren Fundazioa (I. programa)	Euskal Herriko familiako artibo-funtsak berreskuratzeko laguntza zentroa mantentzea. Atorrasagasti maiorazkoak eta Carquizano familia	18.000,00 euro
Zavala Etxeko Artiboaren Fundazioa (II. programa)	Datu-baseak handitzea eta iturri dokumental hautatuak prestatzea digitalizatzeke eta ondoren webgunean zabaltzeko: Euskalerriaren Adiskideen Elkarte aktak, Cerain artxiboa	18.000,00 euro
Guztira		170.000 euro